



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2014ko maiatzaren 16a

64. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duena. Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak eta Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak aurkeztu dute (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzen dituen, Ramón Morcillo Navaz jauna ordezkatzeko duen batzorde sustatzaile batek egina. Izapidetzeko onartzea (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (4. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (5. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea aldatzekoa. Aurkeztutako zuzenketak (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San José zentroko igerilekua konpon dezan. Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeek aurkeztu dute (8. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes eta interesa adierazten baititu Inepsak Nafarroan egoten jarrai dezan. Eledunen Batzarrak onetsia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerbitzu publikoak enpresa pribatuei lizitatzeko baldintza-orrietan ezar dezan sektoreko lan-hitzarmenak betetzearen derrigorrezkotasuna. Gizarte Politiketako Batzordean izapidetzea (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Abiadura Handiko Trenaren Iruña-Castejón tartea eraikitzeko proiektuari buruzkoa, Marisa De Simón Caballero andreak egina (10. or.).

- Galdera, ETB hartzea ahalbidetzeari Nafarroako Gobernuak baldintzak ezartzearen arrazoiei buruzkoa, Nekane Pérez Irazabal andreak egina (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko eskaintza turistikoaz informatzeko Iruñean erabili asmo dituen baliabide presentziaiei buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (11. or.).
- Galdera, enpresa-inbertsiorako eta I+Grako zuzeneko laguntzen leihatila irekitzeko epeei, aurreikuspenei eta baldintzei buruzkoa, Ana Beltrán Villalba andreak egina (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren Iruñeko turismo-bulegoa ixteari buruzkoa, Amaya Zarranz Errea andreak egina (12. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmoa ote duen Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko maiatzaren 29ko 19/2013 Foru Legeari Estatuak aurkeztutako errekursoan formalki agertzeko, Txema Mauleón Echeverría jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak diren ondasun publikoak errentan ematea edo saltzea ekartzen duten kontratuen kopuruari buruzkoa, Koldo Amezketa Díaz jaunak egina (13. or.).
- Galdera, Nafarroako gaixoak “Hospital Calahorra” Fundazioan eta Logroñoko ospitaleetan artatze aldera Nafarroako Gobernuaren eta Errioxako Gobernuaren artean sinatutako hitzarmenei buruzkoa, Samuel Caro Sádaba jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxaren ekonomia eta finantza arloko kudeaketaren kontrolerako batzordeak Nafarroako Gobernuari igorritako txostenei buruzkoa, Manu Ayerdi Olaizola jaunak egina (14. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauaren 9. artikulua 2. idatz-zatia aldatzea (16. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak eta Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrak Foru Lege proposamena aurkeztu dute, Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapide-tu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Gizarteratze Errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori presako prozeduraz eta irakurketa bakarrean izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta hari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, zeina bukatuko baita eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren aurreko egunaren eguerdiko hamabietan. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**Foru Lege proposamena,
Gizarteratze Errenta arautzen duen
urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legea
aldatzen duena**

Artikulu bakarra. Gizarteratze-errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legearen aldaketa.

Gizarteratze-errenta arautzen duen urtarrilaren 23ko 1/2012 Foru Legearen 5. artikuluko 2. idatzatiko a) letra aldatzen da. Honela geldituko da:

“a) 16 urtetik beheitiko seme-alabak dituzten familia-unitateak”

Foru Lege proposamena, Nafarroako kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzen dituenak.

IZAPIDETZEKO ONARTZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.2 artikulua aitortzen duen herriaren legegintza-ekimena erabiliz eta martxoaren 25eko 3/1985 Foru Legearen babesean, Nafarroako kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzen dituen Foru Lege proposamena aurkeztu du Nafarroako Parlamentuan batzorde sustatzaile batek, zeinaren ordezkaria Ramón Morcillo Navaz jauna baita.

Ikusita Legebiltzarreko Zerbitzu Juridikoek horren onargarritasunari buruz egindako txostena,

aipatu foru legearen 5. eta 7. artikuluekin eta Erregelamenduaren 149.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako kanabis-erabiltzaileen kolektiboak arautzen dituen Foru Lege proposamena, Ramón Morcillo Navaz jaunak ordezkatzeko duen Batzorde Sustatzaile batek egina.

2. Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2014ko maiatzaren 8an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena. Proposamen hori atxiki gabeko Manu Ayerdi Olaizola eta Patxi Leuz García jaunek aurkeztu eta 2014ko martxoaren 24ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148., 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen

duen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin, Erregelamenduko 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunak kontuan hartuta.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik zuzenketak aurkezteko epe bat irekiko da, **2014ko ekainaren 3ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentarietako zuzenketak aurkeztu ahalgo dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testuategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2014ko maiatzaren 8an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testuategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duen Foru Lege proposamena. Proposamen hori Eloy Villanueva Cruz jaunak aurkeztu eta 2014ko martxoaren 28ko 45. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Xedatzea prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin Nafarroako Administrazio Publikoen

zerbitzuko langileen estatutuaren testuategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakaritza, Justizia eta Barne Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik zuzenketak aurkezteko epe bat irekiko da, **2014ko ekainaren 3ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena**. Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea aldatzekoa.

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako administrazio publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamenari aurkezturiko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezela agindu dit. Proposamen hori 2014ko otsailaren 28ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 8an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

1. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Artikulu bakarra aldatzeko zuzenketa. 1. artikulua izatera igaroko da, eta honako testu hau izanen du:

«Xedapen gehigarri berri bat gehitzen zaio Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboaren araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legeari. Hona xedapen berri horren testua:

“Hamabosgarren xedapen gehigarria. Osasun-laguntza.

1. Nafarroako Gobernuak egin behar diren zuzemenak eginen ditu Estatuko Administrazioaren aitzinean, Nafarroako Administrazio Publikoen Montepioetako langileak berehalakoan Osasun Sistema Nazionalaren asegurudun edo onuradun gisa sar daitezen bertan, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak horiei kasuko izaera aitortuta, indarreko araudiarekin bat.

2. Osasun Sistema Nazionalan sartzen diren egunetik aitzinako eraginarekin iraungita geldituko da Nafarroako Administrazio Publikoen Montepioetako langileek osasun-laguntzaren arloan izan duten nahitaezko estaldura, zeina araututa baitzegoen Nafarroako Foru Diputazioak 1973ko abuztuaren 24ko erabakiaren bidez onetsitako Osasun Laguntzako Zerbitzuaren Erregelamenduen bidez, eta zerbitzu horren tarifak eguneratzen zituen abuztuaren 19ko 186/2002 Foru Dekretuaren bidez.

3. Nafarroako Administrazio Publikoen Montepioetako langileek eta haien onuradunek mantendu eginen dituzte optikaren eta odontologiaren arloetako gastuak itzul dakizkien gaur egun dituzten baldintzak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloan presako zenbait neurri hartzeari buruzko ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 6. artikuluko 1. idatz-zatian jasotako moduan, iraungi beharreko egoera pertsonal gisa”».

Zioa: Testua aldatu beharra dago; izan ere, Estatuarena da pertsonak Osasun Sistema Nazionalan Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalaren bidez sartzeko eskumena. Gainera, argitu egiten da iraungita geldituko dela Nafarroako Administrazio Publikoen Montepioetako langileek osasun-laguntzaren arloan gaur egun duten nahitaezko estaldura, sektore publikotik estaldura bikoiztea ekidite aldera. Azkenik, kolektibo horrek optikaren eta odontologiaren arloetako gastuak gaur egungo baldintzetan itzultzeko duen eskubidea “iraungi beharreko” gisa mantentzen da.

2. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

2. artikuluko berri bat gehitzea, honako testuarekin:

«Nafarroako Administrazio Publikoen Montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003

Foru Legearen 11. artikulua aldatzen da. Testu hau izanen du:

“11. artikulua. Kotizazio mota.

Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrera afiliatutako funtzionarioei aplikatutakoa izanen da kotizazio mota bakarra”.

Zioa: Artikulu hori aldatu beharra dago, egoera berrira egokitze aldera. Halatan, “erabilera berezia” desagertuta, kolektibo horri Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrera afiliatutako funtzionarioentzat ezarritako kotizazio mota aplikatu behar zaio, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea onetsi zen unean aipatu artikuluan jada jaso zen bezala.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen indargabetzailea aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Indarrrik gabe uzten dira, foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten heinean, maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak; zehazki, Nafarroako Foru Diputazioak 1973ko abuztuaren 24ko erabakiaren bidez onetsitako Osasun Laguntzako Zerbitzuaren Erregelamendua eta 186/2002 Foru Dekretua, abuztuaren 19koa, Erabilera Berezikoko Osasun Laguntzako Zerbitzuan sarturik dauden Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioendako tarifak gaurkotu eta zerbitzu horretako prestazioak arrazionalizatzeko neurri bartzuk biltzen dituen”.

Zioa: Testua aldatu beharra dago, foru lege proposamenaren eduki berriarekiko koherentziaz, aurreko zuzenketetan jaso.

4. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Azken xedapena aldatzeko zuzenketa. Hona testua:

“Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, salbu eta 2. artikulua, zeina Nafarroako Administrazio Publikoen Montepioetako langileak Osasun Sistema Nazionalan egiaz sartzen direnetik aitzina aplikatuko baita”.

Zioa: Foru legea indarrean sartzeari buruzko testua aldatu da foru lege proposamen honi gehitutako 2. artikuluko berriaren ondorioz, motepioetako

langileen kotizazio mota jaitea bat etor dadin langile horiek Osasun Sistema Nazioanalean egiaz sartzearekin eta, ondorioz, "erabilera berezia" desagertzearekin.

5. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zioen azalpenari lerrokada berri bat gehitzea.
Testu hau izanen du:

"Martxoaren 27ko 3/2014 Legeak, hirugarren xedapen gehigarrian, baimena ematen dio Gobernuari, Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako

Administrazio Publikoen montepioetako langileei emandako osasun-laguntzaren arloko nahitaezko estaldura iraungi ostean, Osasun Sistema Nazioanalean bertako asegurdun edo onuradun gisa sarditzan langile horiek, Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionalak kasuko izaera aitortuta horiei, Osasun Sistema Nazionalaren Kalitateari eta Kohesioari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legearen 3. artikuluan xedatutakoarekin bat."

Zioa: Zioen azalpenean argitzea foru lege hau eman dela martxoaren 27ko 3/2014 Legean jasotako baimena garatuz, Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako langileak Osasun Sistema Nazioanalean sartzeari ahalbidetzeko.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da San José zentrotroko igerilekua konpon dezan.

BILDU-NAFARROA ETA ARALAR-NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bildu-Nafarroa eta Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeen aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita San José zentrotroko igerilekua konpon dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdikoa hamabietan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen, Legebiltzarreko Erregelamenduaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Iragan urtarrilaren 9an, Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi zuen Nafarroako Gobernuari eskatzea konpon zezan Iruñeko San José Zentrotroko igerilekua, zeina Nafarroako Gobernuaren jabetzako zentro batean dagoen bakarra baita.

Gobernuak deus ere egiten ez zuela ikusita, Gizarte Gaietarako kontseilari Alli jaunari idatziz galdetu zitzaion obrak egiteko asmorik zuen ala ez. Bere erantzuna beste behin ere izan da ez duela beteko Nafarroako Parlamentuak aho batez adierazitako borondatea; gainera, lasai ederrean Nafarroako gizatalde ahulenetako bat ezinbestekoa duen terapiarik gabe utziko du. Kontseilariak azaldutako aitzakia da –nola ez– ez dagoela obrari ekiteko aurrekontu-likidezirik.

Onetsitako mozioak orobat iradokitzen zuen ur berodun igerilekua duten Nafarroako toki entitateekin harremanetan jartzeko, baldin eta obrak epe motzean egitea ezinezkoa bazen, instalazio horiek egokitu eta terapia horietarako erabiltzeko hitzarmenak sinatze aldera.

Baina ez da egin ez bata ez bestea. Ordezko gisa, musika-terapiako eta gorputz-adierazpeneko jarduerak proposatzen ditu Alli jaunak; jarduera horiek, ezgaitasunaren arazoaren gorabeherak ezagutzen dituen edozeinek dakien bezala, zerikusi gutxi dute ur-terapiekin, eta are gutxiago terapia horien bidez lortzen diren emaitzekin.

Hortaz, Parlamentu honek aho batez adierazitako nahiaren blokeo argi baten aitzinean gaude, eta hori ezin da besterik gabe onartu. Hori dela-eta, behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

- Berehala has dezan San José Zentrotroko igerilekuaren konponketa, ezgaitasuna duten pertsonen xede terapeutikoarekin erabili ahal izan dezaten.

- Igerilekua erabiltzeko moduan ez dagoen bitartean ur-terapiako ganorazko aukerak eskain ditzan, hitzarmenak eginez erabilera horretarako prestatuturiko instalazioak dituzten entitate publikoekin.

- Parlamentu honetan lege proposamen bat aurkez dezan, eskatutako jarduketa diruz hornitzeko bideak jarriko dituen, baldin eta likidezia nahikorik eza edo Ogasun Departamentuaren blokeoa jarraitzen baditu erabiltzen desenkusa gisa.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 8an

Foru parlamentariak: Víctor Rubio Martínez eta Xabier Lasa Gorraiz

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta interesa adierazten baititu Inepsak Nafarroan egoten jarrai dezan.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2014ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere konpromiso ezeztazina adierazten jarraitzen du, Inepsa enpresak Foru Komunitatean egoten jarraitzearen aldekoa; horrenbestez, Legebiltzarrean ordezkari-tza duten taldeen ahobatezkotasunetik, eskatzen du Nafarroako Gobernuak konpromisoa erakutsi dezan beharrian horrekin berarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak, Inepsak Nafarroako gizarteari egiten dion ekarpenaz jabetuta, enpresaren zuzendaritzari eskatzen dio konpromisoa izan dezan, gure artean egoten jarraitzeko ez ezik Nafarroan daukan planta berrindartzeko ere; eta, halatan, bertan egun egiten den produktua dibertsifika dezan, produktu bakar batekiko gehiegizko menpekotasunaren arriskuak saiheste aldera.”

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zerbitzu publikoak enpresa pribatuei lizitzatzeko baldintza-orrietan ezar dezan sektoreko lan-hitzarmenak betetzearen derrigorrezkotasuna.

GIZARTE POLITIKETAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Gizarte Politiketako Batzordean izapidetu dadila Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita zerbitzu publikoak enpresa pribatuei lizitzatzeko baldintza-orrietan

ezar dezan sektoreko lan-hitzarmenak betetzearen derrigorrezkotasuna. Mozioa 2014ko apirilaren 11ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

F saila:
GALDERAK

Galdera, Abiadura Handiko Trenaren Iruña-Castejón tartea eraikitzekeo proiektuari buruzkoa.**MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, Abiadura Handiko Trenaren Iruña-Castejón tartea eraikitzekeo proiektuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko Marisa de Simón Caballero, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galde-

ra egin du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Argi dago Nafarroako Gobernuak eutsi egiten diola Abiadura Handiko Trenaren Iruña-Castejón tartea eraikitzekeo proiektua garatzeari.

Izan ere, Adif-Abiadura Handiko Trenbideazpiegituren administratzaileak orain dela gutxi bi iragarki argitaratu ditu Estatuko Aldizkari Ofizialean, zeinen bidez jendaurrean paratu baita, desjabetze ondorioetarako, Villafranca-Erriberri eta Erriberri-Tafalla tarteei dagozkien 29,8 kilometroren eraikuntza.

Noizko aurreikusten da bukatzea bi tarte berri horien eta tarte osoaren obrak? Adif noiz hasiko da eraikitako plataforma-tarteetan trenbideak paratzen? Nafarroako Gobernuak zer aurreikuspen darabil trenbide horretan salgaiak garraiatzeari buruz?

Iruñean, 2014ko apirilaren 30ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, ETB hartzea ahalbidetzeari Nafarroako Gobernuak baldintzak ezartzearen arrazoiei buruzkoa.

NEKANE PÉREZ IRAZABAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nekane Pérez Irazabal andreak aurkeztutako galdera, ETB hartzea ahalbidetzeari Nafarroako Gobernuak baldintzak ezartzearen arrazoiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Nekane Pérez Irazabalek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkezten du, Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetarako kontseilari Sánchez de Muniáin jaunak Legebiltzarreko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernuak zer dela-eta ezarri ditu baldintza batzuk ETB hartzea ahalbidetzeko?

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Nekane Pérez Irazabal

Galdera, Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko eskaintza turistikoz informatzeko Iruñean erabili asmo dituen baliabide presentziaiei buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Foru Komunitateko eskaintza turistikoz informatzeko Iruñean erabili asmo dituen baliabide presentziaiei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak Iruñean zer baliabide presentzial erabiltzeko asmoa du Foru Komunitatearen eskaintza turistikoz informatzeko?

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, enpresa-inbertsiorako eta I+Grako zuzeneko laguntzen leihatila irekitzeko epeei, aurreikuspenei eta baldintzei buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, enpresa-inbertsiorako eta I+Grako zuzeneko laguntzen leihatila irekitzeko epeei, aurreikuspenei eta baldintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer epe, aurreikuspen eta baldintza darabil enpresa-inbertsiorako eta I+Grako zuzeneko laguntzen leihatila irekitzeko?

Iruñean, 2014ko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroako Gobernuaren Iruñeko turismo-bulegoa ixteari buruzkoa.

AMAYA ZARRANZ ERREA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Amaya Zarranz Errea andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren Iruñeko turismo-bulegoa ixteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

xedatuaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuaren turismo-bulegoa –Orreaga etorbidea, Iruña– itxi dela-eta, hauxe jakin nahi dut:

– Bulego hori zein datatan ireki zen eta itxi den.

– Artatutako pertsona-kopurua, hilez hil eta urtez urte.

– Esleitutako langileak.

– Zein funtzio bete diren.

– Bulegoa egokitzearen kostua.

– Nafarroako turismo-bulegoetako komunikazio globaleko proiektua dela-eta bulego horretan garatutako jarduketak eta kostua.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Amaya Zarranz Errea

Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmoa ote duen Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko maiatzaren 29ko 19/2013 Foru Legeari Estatuak aurkeztutako errekurtsioan formalki agertzeko.

TXEMA MAULEÓN ECHEVERRÍA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Txema Mauleón Echeverría jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmoa ote duen Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko maiatzaren 29ko 19/2013 Foru Legeari Estatuak aurkeztutako errekurtsioan formalki agertzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzuteko: Erantzuna urgentziatzko bidetik ematea eskatzen dugu, Erregelamenduaren 108. artikulua oinarri; maiatzaren 15a baino lehen, hain zuzen ere, hori baita auzi honetarako azken eguna.

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Nafarroako Administrazio Publikoetan funtzionarizazio prozesu berri bat abian jartzeari buruzko maiatzaren 29ko 19/2013 Foru Legeari Estatuak jarritako errekurtsioan formalki agertzeko?

Ezezkoan, azaldu arrazoiak.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Txema Mauleón Echeverría

Galdera, Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak diren ondasun publikoak errentan ematea edo saltzea ekartzen duten kontratuen kopuruari buruzkoa.

KOLDO AMEZKETA DÍAZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Amezketa Díaz jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren jabetzakoak diren ondasun publikoak errentan ematea edo saltzea ekartzen duten kontratuen kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Koldo Amezketa Diazek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari honek jakin nahi du Nafarroako Gobernuak edo bere edozein sozietate publikok 2010eko urtarrilaren 1etik aitzina sinatuak izanik, Nafarroaren ondarearen zati diren ondasun publikoak errentan eman edo saltzea ekarri duten kontratuen kopurua.

Hori dela-eta, hau jakin nahi dugu:

1- Nafarroako Gobernuak nahiz bere sozietate publiko bakoitzak sinatutako kontratuen kopuru

osoa, ukitutako ondasuna zehaztuta, honako ekitaldi hauetan: 2010, 2011, 2012, 2013 eta 2014, apirilaren 30era arte.

2- Horietako zenbatek dituzten konfidentzialtasun-klausulak.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Koldo Amezketeta Díaz

Galdera, Nafarroako gaixoak “Hospital Calahorra” Fundazioan eta Logroñoko ospitaleetan artatze aldera Nafarroako Gobernuaren eta Errioxako Gobernuaren artean sinatutako hitzarmenei buruzkoa.

SAMUEL CARO SÁDABA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Samuel Caro Sádaba jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako gaixoak “Hospital Calahorra” Fundazioan eta Logroñoko ospitaleetan artatze aldera Nafarroako Gobernuaren eta Errioxako Gobernuaren artean sinatutako hitzarmenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádabak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera aurkeztu du, Osasun Departamentuak idatziz erantzun dezan:

- Nafarroako gaixoak “Hospital Calahorra” Fundazioan eta Logroñoko ospitaleetan artatze aldera, Nafarroako Gobernuaren eta Errioxako Gobernuaren artean sinatutako hitzarmenen artean zer alde dago?

Alderik baldin badago, alde horiek egotea justifikatzen duten arrazoiak zehaztea eskatzen dugu.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Galdera, Nafarroako Kutxaren ekonomia eta finantza arloko kudeaketaren kontrolerako batzordeak Nafarroako Gobernuari igorritako txostenei buruzkoa.

MANU AYERDI OLAIZOLA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Manu Ayerdi Olaizola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Kutxaren ekonomia eta finantza arloko kudeaketaren kontrolerako batzordeak Nafarroako Gobernuari igorritako txostenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

GALDERAREN TESTUA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizolak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan.

Korporazio Gobernuaren 2004ari buruzko txostenarekin bat –2005ean argitaratu zen–, zeinaren erreferentzia baitira 2004an onetsitako estatutuak, honako hauek dira, besteak beste, Kontrolerako Batzordearen eginkizunak:

– Kutxaren ekonomia- eta finantza-kudeaketa aztertzea eta bere kontuak egiaztatzea, horiei buruzko urteko txosten bat eginez, zeina Espainiako Bankuari, Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari eta entitatearen Kontseilu Nagusiari igorriko baitzaie.

– Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari igortzea Administrazio Kontseiluaren, Batzorde Betearazlearen edo Administrazio Kontseiluak eskuordetutako ahalmenak modu iragankorrean edo iraunkorrean dauzkaten akordioen eraginkortasuna eteteko proposamenak, baldin eta uste badu akordio horiek estatu-xedapenak urratzen dituztela edo bidegabeki eta larriki eragiten dietela ondare-egoerari, emaitzei edo Kutxaren nahiz bere bezeroen kredituari.

Txosten berean adierazten da ezen, Nafarroako Kutxaren Antolamenduari eta Barne Funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren 13. artikuluan ezarritakoa betez, Kontrolerako Batzordeak esleitua duela ondoko ahalmena, besteak beste:

– Kontseilu Nagusiko lehendakariari urtero igortzea entitatearen finantza-kudeaketari aplikatu beharreko legediaren betetzeari buruzko txosten bat, zeina orobat jakinaraziko baitzaie Espainiako Bankuari eta Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasun Departamentuari.

Bestalde, Korporazio Gobernuaren 2010ari buruzko txostenaren arabera –Kutxaren estatutuak orduan aldatu ziren, eta orduan ere erabaki zen Banca Cívica eratzea–, arestiko paragrafoetan

adierazitako betekizun berberak mantentzen dira, Kontrolerako Batzordea Nafarroako Gobernuarekin erlazionatzen dutenak.

Kontrolerako Batzordeko lehendakari Sarría jaunak berak adierazi zuen, Goñi jaunaren agerraldiaren karietara Ekonomia eta Ogasun Batzordean agerraldia egin zuenean, Kontrolerako Batzordeak unean-unean igortzen zizkiola Gobernuari igorri beharreko txostenak.

2013ko martxoaren 21ean, parlamentari honek galdera idatzi bat aurkeztu zuen, Nafarroako Kutxari buruzko zenbait informazio eskatzeko. 14. puntuan haxe eskatzen nuen, zehazki: “Nafarroako Kutxako Auditoretza Batzordeak eta Kontrolerako Batzordeak 2002tik aitzina egindako txostenen kopia, zeinak, Sarriá jaunak Enrique Goñiren iragan otsailaren 19ko agerraldian adierazi zuenez, besteak beste Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari igortzen baitzitzaizkion?”

Nafarroako Gobernuak, 2013ko apirilaren 30eko erantzun laburrean, haxe besterik ez zidan adierazi: “tamalez jakinarazi behar dizut departamentu honek ez daukala eskatutako informazioa, zeren eta Nafarroako Kutxa nortasun juridiko independentea eta izaera pribatua dituen entitate bat baita”.

Hona galdera:

1. Egia al da arestiko paragrafoetan azaldutako eginkizunak betez Kontrolerako Batzordeak egin zituen txostenak Nafarroako Gobernuak ez daukela? Ala, aitzitik, ez zen zuzena izan horri buruz 2013ko apirilaren 30eko emandako erantzuna eta eskatutako gainontzeko dokumentuei buruzkoa zen?

2. Txostenak edukiz gero, Gobernuak parlamentari honi lehenbailehen bidal al liezazkioke galdera honen zioen azalpenean adierazitako eginkizunen esparruan Kontrolerako Batzordeak 2002tik gaur egun arte Gobernuari igorritako txostenak?

Iruñean, 2014ko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Manu Ayerdi Olaizola

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauaren 9. artikulua 2. idatz-zatia aldatzea.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2014ko maiatzaren 12an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailatza eta Gai Ekonomikoe-tarako Zerbitzuko buruak emandako txostena eta Legelari Nagusiaren oniritzia foru parlamentarien bidaia ofizialetan sorturiko gastuen ordainei dago-kienez, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikulua xedatutakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauaren 9. artikulua 2. idatz-zatian hurrengo lerrokada gehitzea:

“Foru parlamentariak aukeratzen ahalko dute edo Mahaiak ezarritako ordain finkoa jaso edo egindako gastu behar bezala justifikatuen zenbateko zehatza jaso, zeinak ez baitu gaitutako ordain finkoaren zenbatekoa”

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2014ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera